

**Gustave Flaubert**

**Bihotz sinplea**

**euskaratzailea: Patxi Apalategi**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Patxi Apalategi.

Euskarazko edizioa: Erein, 1996

Jatorrizkoaren data: 1877

Gustave Flaubert euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=192>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=675>

Menderdi batez barrena bekaiztu zioten, Pont-l'Évêqueko andere guztiek, Mme Aubaini haren Félicité neska.

Urteko ehun liberaren truke, hark sukaldea eta etxeko lanak egiten zizkion, arropa josi, garbitu eta lisatzen zuen, bazekien zaldiari kraixtuak ezartzen, hegaztiak guritzen, gurina irabiatzen, eta bere etxekoandreari beti leial izan zitzaion, —hura alabaina pertsona atsegina ez izaki.

Hura ondasunik gabeko mutil gazte eder batekin ezkondua zen, 1809ko urte hasieran zendua, hari bi haur oso gazte utziz zor pilarekin batera. Orduan hark bere onibarrak saldu egin zituen, Toucquesko etxaldea eta Geffossesko etxaldea ezik, horien errentak gehienik jota ere 5.000 liberatarara heltzen zirelarik, eta Saint-Melaineko bere etxea utzi egin zuen gastu gutxiagoko beste batean bizitzeko, bere arbasoena izana eta merkatuaren atzean kokatua.

Etxe hori, arbelez estalia, ibaian bukatzen ziren pasabide baten eta karrika baten artean aurkitzen zen. Barnean, behaztoparazten zuten nibel diferentziak zituen. Ezkaratze estu batek bereizten zuen sukaldea *salatik*, eta han egoten zen Mme Aubain egun osoan zehar leihoaren ondoan eserita lastozko besaulki batetan. Zarpeatuaren kontra, zuriz pintatua, kaobazko zortzi aulki zeuden ilaran. Piano zahar batek sostengatzen zuen barometro baten pean, kaxa eta kartoi pila piramidal bat. Tapizeriazko bi aulki zabalek saiheskatzen zuten marmol horizko eta Louis XV estiloko sukanea. Pendulu-erlojuak, erdian, Vestaren tenplu bat irudikatzen zuen, — eta etxebizitza osoak lizundura usain apur bat zuen, zeren zorua jardina baino beherago baitzegoen.

Lehen solairuan, «Madame»n gela zegoen lehenik, oso handia, lore zuhaildun paperez estalia, eta xanfarinez jantzitako «Monsieur»ren erretratu bat zuela. Horretatik sartzen zen beste gela txikiago batera, eta hartan bi haur-etzangu ikusten ziren, koltxoirik gabe. Gero sabaia zeto- rren, beti itxia, eta maindire batez estaliriko

altzariz betea. Hurrena korridore batek ikasketa kabinete batera zeraman; liburuz eta paper mordoz horniturik zeuden liburutegi bateko apalak, zur beltzeko idazmahai bat hiru aldetatik inguratuz. Itzulerako bi trenkada-panelak, Audranen lumazko marrazkiren, guaxecko paisaien eta grabaturen pean desagertzen ziren, garai hobe baten eta iraungitako luxu baten oroitzapen. Bigarren solairuan sabai-leiho batek argitzen zuen Félicitéren gela, bistak belazeetarantz zituela.

Egunsentia orduko jaikitzen zen, mezatara ez faltatzearren, eta arratsera arte lan egiten zuen etenik gabe; gero, afaria bukatu, baxera ordenan eta atea ongi itxirik, ilatia surtautsen pean sartzen zuen eta loak hartzen zuen beheko suaren aurrean, bere errosarioa eskuetan. Errekardaritzan inork ez zuen azaltzen egoskortasun handiagorik. Garbitasunean berriz, haren eltzeen dirdaia etsigarri zitzaien beste neska-meei. Gastaurri, astiro jaten zuen, eta behatzaz biltzen zituen mahai gainetik bere ogiaren papurrak, —hamabi libratako ogi bat, espreski berarentzat errea, eta hogeit egun irauten ziona.

Urtaro orotan jazten zuen indianazko zapi bat orratz batez bizkarrean estekaturik, txano bat ileak estaliz, galtzerdi grisak, azpikogona gorri bat, eta bere bruxaren gainetik paparrerainoko amantala, ospitaleko erizainen gisa.

Haren aurpegia argala zen eta ahotsa zorrotza. Hogeita bost urtetan, berrogei ematen zioten. Berrogeita hamarrez gero, jadanik ez zuen inolako adinik markatu; —eta, beti isilik, gerria tente eta keinukera neurritsua, zurezko emakume bat zirudien, modu automatiko batetan funtzionatzen.

## II

Izana zuen, beste edozein emakumeren gisa, bere amodiozko historia. Aita, igeltseroa, aldarmio batetik erorita hil zen. Gero ama hil zen, ahizpak sakabanatu ziren, laborari batek jaso zuen etxean, eta oso txikitandik landa larreetan behiak zaintzen enplegatu zuen. Hotzez dildilka egiten zuen bere piltzarren pean, ahozpez etzanda edaten zuen putzu zuloetako tira, hutsaren hurrengoa aitzaki harturik jo egiten zuten, eta azkenik, berak egin ez zuen hogeita hamar sosen lapurreta batengatik kanpora bota zuten. Beste etxalde batean sartu zen, han eskindoiko hegazti-zain bilakatu zen, eta, ugazabek begiko zutenez, bere lankideak bekaizti zituen.

Abuztuko arrats batez (orduan hemezortzi urte zuen), Collevilleko biltzarrera eraman zuten ugazabek. Segituan txoraturik geratu zen, arrabitarien zalapartagatik txunditurik, hango zuhaitzetako argiak, jantzien nabardura, egalunak, urrezko gurutzeak, jendetza samalda hura batera saltaka. Hura aparte mantentzen zen itxuros-

ki, hartan, gizon gazte bat aberats antzekoa, bi ukondoak karreta baten gurtagan pipa erretzen ari zen bat, dantzara gonbidatzera etorri zitzaionean. Hark sagardoa, kafea, erroskila, iduneko zapi bat pagatu zizkion, eta, neskak gauza sumatzen zuela pentsatuz, etxera laguntzeko eskaini zen. Olo-soro baten bazterrean, basatiki uzkali zuen. Neska beldur izan zen eta garraisika hasi zen. Besteak alde egin zuen.

Beste arrats batez, Beaumonterako bidea, oso bare zihoan belargurdi handi bat aurreratu nahi izan zuen, eta gurpilen parera orduko eza-gutu zuen Théodore.

Patxarako plantaz hasi zitzaion mintzatzen, dena barkatu behar zela esanez, zeren «edariaren errua» baitzen.

Neskak ez zuen jakin zer erantzun eta aldegitoko gogoia zeukan.

Berehala herriko uzta eta jauntxoez hitzegin zuen, zeren haren aitak Colleville utzia baitzuen Ecotsetako etxaldera joateko, eta hortaz orain auzokide kausitzen baitziren. — «A!» esan zuen neskak. Besteak erantsi zuen han finkatu nahi zutela. Gainontzekoz, ez zeukan presarik, eta



bere gustuko emazte bat espero zuen. Neskak burua makurtu zuen. Orduan gizonak galdetu zion ea ezkontzeko asmorik zuen. Neskak, irribarrez, iseka egitea gaizki zegoela. «Ezetz ba, zin egiten dizut!» eta ezkerreko besoaz gerria hartu zion; haren hertsaketak sostengaturik zihoan ibilian; abiada baretu zuten. Haizea motela zen, izarrek ñirñir zegiten, belar gurdi haundiak balantza egiten zuen haien aurrean; eta lau zaldiek, urratsa herrestatuz, hautsa altzatzen zuten. Gero, agindurik gabe, eskuinerantz jiratu ziren. Gizonak musu eman zion beste behin ere. Neska ilunpean desagertu zen.

Théodorek, hurrengo astean, harekin hitzorduak lortu zituen.

Lobiroen hondoan elkartzen ziren, horma baten atzean, zuhaitz isolatu baten pean. Neska ez zen inuzentea damarxoan gisa —animaliek irakatsia zioten—; baina ohorearen arrazoiak eta senak eragotzi zioten peto egiten. Jarkipen horrek etsibizitu egin zuen Théodoreren amodioa, hainbestearino non atsegitearren (edo xaloki agian) ezkontzea proposatu baitzion. Nes-

kak zalantza zuen hari sinesten. Gizonak zinesan handiak jalgi zituen.

Berehala zerbait gogaikarria aitortu zuen gizonak: bere gurasoek, joan zen urtean, gizon bat eresia zioten; baina hori egun batetik bestera berbideratu ahal izango zen; zerbitzatzeak ikaratu egiten zuen. Koldarkeria hori Félicitérentzat laztantasun froga bat izan zen; berea hortaz bikoiztu egin zen. Gauez ihes egiten zuen, eta, hitzeman tokira heldurik, Théodorek torturatu egiten zuen bere kezka eta setakeriekin.

Azkenik, Prefekturara informazioak hartzera propio bera joango zela iragarri zion, eta hurrengo igandean ekarriko zituela hamaikak eta gauerdi bitartean.

Tenorea iritsirik, korrika joan zen maitalearengana.

Haren lekuan, haren lagunetariko batekin kausitu zen.

Hark adierazi zion, hura ez zuela berriz gehiago ikusi behar. Erremateaz bermatzeko, Théodore ezkondu egin zen Toucquetseko atso zahar oso aberats batekin, Mme Lehoussaisekin.

Atsekabea, ariogabekoa izan zen hura. Bere burua lurrera jaurtiki zuen, garraisiak bota zituen, Jainko santuari dei egin zion, eta aieneka egon zen landan bakar-bakarrik harik eta eguzkibegi arte. Gero etxaldera itzuli zen, joateko asmoa azaldu zuen; eta, hilabeteren buruan, bere kontuak kobraturik, bere ekipaiatxo osoa zapi batean bildu zuen, eta Pont-l'Evêquera jo zuen.

Ostatuaren aurrean, alargun mantelinez estalitako dama bati galde egin zion, eta eskierki sukaldari baten bila zebilena. Neska gazteak ez zekien gauza handirik, baina bazirudien hain borondate ona zuela eta hain eskakizun gutxi non, Mme Aubainek azkenean hala esan baitzion:

— Horra ba, onartu egingo zaitut!

Félicité, ordu laurden bat geroago, haren etxean tokia harturik zen.

Hasieran, «etxegiro moldeak» eta hartan ororen gain itzala egiten zuen «Monsieur»en oroitzapenak eragiten zion ikara antzeko batetan bizi izan zen. Paul eta Virginie, bata zazpi urtekoa eta bestea doi lau urtekoa, materia preziatu

batez eginak iruditzen zitzaizkion; bizkarrean erabiltzen zituen zaldi batek bezala, eta Mme Aubainek debekatu egin zion haiek momentu oroz musukatzea, eta horrek minduratu egin zuen. Alabaina zoriontsu kausitzen zen. Hango giroaren gozotasunak urtua zuen haren tristura.

Ostegunero, ohikoak etortzen ziren boston-eskualdi bat jokatzera. Féliciték alde zurririk prestatzen zituen kartak eta berogailuak. Haiek zortzietan puntuak heltzen ziren, eta hamaikak jo aurrez erretiratzen ziren.

Astelehen goiz bakoitzez, azpiko karrikan egoitza zuen errementariak lurrian zabaltzen zituen bere burdineriak. Gero herria ahots burrundaraz betetzen zen, hartan zaldien irrintziak, bildotsen behekarak, zerrien kurrinkak, karreten kaleko brastako zaratarekin batera nahasirik. Eguerdi aldera, merkatua puri-purian zegoela, kaizu handiko laborari zahar bat ikusten zen atalasean agertzen, boneta atzean, sudur makoa, Robelin zen alegia, Geffossesko maizterra. Handik laster, Liébard izaten zen, Toucqueseko maizterra, txikia, gorria, gizona, txamarra

grisa eta ezproinez armaturiko larruzko galtxoienak jantzirik.

Biek eskaintzen zizkioten beren ugazaba andeari oilaskoak eta gaztak. Féliciték betiere beti, haien zimarkunak porrotean uzten zituen; eta han joaten ziren neskarenganako adeitasunez beterik.

Garai seinalatugabetan, Mme Aubainek Gremenvilleko markesaren bisita izaten zuen, haren osabetariko bat, burugaldukerian lur jotakoa eta Falaisen bere lurraldeen azken muturrean bizi zena. Hura beti bazkalorduan aurkezten zen, hankapean altzari guztiak zikintzen zituen kani-txe nazkagarri batekin. Aitonseme itxura azaltzeko haren ahaleginak gora behera, «Gure aita zena» esaten zuen bakoitzean bere kapela altxatzeraino, halere azturak tiraturik, hurrupa orduko hurrupa ateratzen zuen edatekoa, eta ozarriak jalgitzen zituen. Féliciték kanpora bultzatzen zuen modu onez: «Baduzu nahikoa, Gremenvilleko Jauna! Hurren arte!» Eta berriro atea ixten zuen.

Gustora irekitzen zuen Bourais jaunaren, prokuradore ohiaren, aurrean. Haren gorbata zuriak

eta haren burusoilak, haren alkandoraren paparrrekoak, haren longaina arre zabalak, besoa biribilkatuz heltzeko haren erak, haren gizamolde osoak, gizon apartekoren ikusmirara bulkatzen gaituen artega hori eragiten zion.

«Madame»ren ondasunak hark kudeatzen zituenez, ordu luzez barrolatzen zen etxeakoandrearekin «Monsieur»ren kabinetean, bere burua konprometatzeko beldur zen beti, muga-gabeki errespetatzen zuen magistratura, latinerako nahiusteak bazituen.

Haurrak era atseginean eskolatzeko, estandun geografia bat egin zien opari. Munduko eszena desberdinak irudikatzen zituzten, burua lumaz jantzitako antropofagoak, tximu bat dama gazte bat bahitzen, Beduinoak desertuan, arponatzen ari ziren balea bat, e.a.

Paulek eman zion grabatu haien azalpena Félicitéri. Bestez, horixe izan zen haren hezkuntza literario guztia.

Haurrena Guyotek egiten zuen, Udaletxean enplegaturiko bixiasmo bat, bere letra onarengatik ospetsua, eta ganibeta bere botagainean zorrozten zuena.

Eguraldi argia egiten zuenean, Geffossesko etxaldera joaten ziren goiz.

Sarobea aldapan dago, etxea erdian; eta itsasoa, urrunean, orban gris baten antzo ageri da.

Féliciték bere otarretik okela xerra hotzak ateratzen zituen, eta esnetegiaren segidako apartamendu batean bazkaltzen zuten. Hura zen jada desagerturiko laketetxe baten gerakin bakarra. Hormako paper zarratatuak dildil egiten zuen aire korronteen aldera. Mme Aubainek bekokia makurtzen zuen, oroipenez abaildurik; haurrak orduan ez ziren ausartzen hitzik egiten. «Baina joan ba jolasera!» esaten zien hark; haiek hanka egiten zuten.

Paul ganbarara igotzen zen, txoriak harrapatzen zituen, putzuan zopak ateratzen zituen, edo makila batez jotzen zituen danborrek bezala durundatzen zuten kupela handiak.

Virginiek untxiei jaten ematen zien, nabarloreak biltzeko oldartzen zen, eta haren zangoen lasterrak haren galtza txiki brodatuak erakusten zituen.

Udazkeneko arrats batez, belazeetan barrena itzuli ziren.

Ilargiak ilgoran zeruaren alde bat argitzen zuen, eta lainaideak flotatzen zuen idunzapi baten gisa Toucqueseko zelai bihurrien gainean. Idi batzuek, belartzari erdian etzanda, lasai begiratzen zieten lau pertsona horiei pasatzen. Hirugarren larrean batzuk zuritu egin ziren, gero haien aurrean jirako korruan jarri ziren. — «Ezeren beldurrik ez izan!» esan zuen Féliciték; eta, erosta molde bat murmurikatuz, bizkarrezurra igurtzi zion hurbilen zegoenari; idiak burua jiratu zuen eta besteek imitatu egin zuten. Baina, hurrengo belar arloa zeharkatzean, egundoko marrua hedatu zen. Behelainoak estaltzen zuen zezen bat zen. Bi emakumeetarantz aurreratu zen. Mme Aubain korrika hastera zihoan. — «Ez! ez! geldiroago!». Alabaina pausaia presakatzen ari ziren, eta atzetik hurbiltzen ari zen arnasa ozen bat entzuten zuten. Haien apatxek, mailu gisa, larreko belarra zanpatzen zuten; eta horra ba, orain laukoan zetorren! Félicité jiratu egin zen, eta bi eskuez lur zohiak erauzten zituen zezenari begietara botaz. Hark muturrak jaisten zituen, adarrak astintzen zituen eta amorruez dardar egiten zuen izugarriro marrukatuz. Mme



Aubainek, bere bi haurrekin belardiaren muturrean, aztoraturik bilatzen zuen murko altua nola pasa. Félicité betiere atzeraka zihoan zezenaren aurrean, eta etengabe botatzen zizkion hura itsutzen zuten zotal belardunak, garraisi egiten zuen bitartean: — «Bizkor ba! bizkor ibili!».

Mme Aubain jaitsi zen erretenzoko, bultzatu zuen Virginie, segidan Paul, askotan erori zen pendoitza igotzeko ahaleginetan, eta adoreaaren poderioz lortu ere egin zuen.

Zezenak inguratua zuen Félicité hesi baten kontra; haren lerdeak aurpegia zipriztintzen zion, beste segundu bat eta lehertua zuen. Bi hesolaren artetik iragaiteko astia izan zuen, eta piztia handia, txol txunditurik, gelditu egin zen.

Gertaera hori, aski urtetan zehar, hizpidetarako gaia izan zen Pont-l'Évêquen. Féliciték ez zuen horretatik inolako harrotasunik atera, ezer heroikorik egin ez zuenik berekiko zalantzan ere ipini gabe.

Virginiek arduratzen zuen eksklusiboki; — zeren, izualdi haren ondorioz, nerbioetako erialdi bat izan baitzuen, eta Poupart jaunak, dokto-

reak, Trouvilleko itsas-bainuak aholkatu baitzitu-  
tuen.

Garai hartan, haietarako usariorik ez zen. Mme Aubainek haien berri bildu zuen, Bourais kontsultatu zuen, bidaia luze baterako gisako prestakuntzak egin zituen.

Haren pardelak bezperan abiatu ziren, Lié-  
barden karretan. Biharamonean, bi zaldi ekarri  
zituen, haietariko batek emakume-zela zuelarik,  
balusazko bizkar sostenguz hornitua; eta biga-  
rrenaren gilbor gainean beroki biribildu batek  
eserleku antzekoa moldatzen zuen. Mme Aubain  
zaldira igo zen, bestearen ondoren. Féliciték  
hartu zuen Viginieren kargu, eta Paul zankale-  
tran jarri zen Lachaptois jaunak, ongi zaintzeko  
baldintzapean, lagatako astoaren gainean.

Bidea hain zen txarra non, zortzi kilometro  
haiek bi ordu eramán baitzuten. Zaldiak axurtu-  
neraino sartzen ziren lokatzetan, eta handik ate-  
ratzeko aldaken mugimendu zakarrak egiten  
zituzten; edota arroilen kontra oztopatzen ziren;  
beste batzutan, salta egin behar izaten zuten.  
Liébarden behorra, zenbait tokitan, bat-batean  
gelditu egiten zen. Hura lasaikiro zain egoten

zen, behorra berrero noiz abiatuko; eta bidearen ertzetako lurraldeen jabeek hitzegiten zuen, haien historiari gogoeta moralak gaineratuz. Horrela, Toucqueseko erdian, amatxilorez inguraturiko leiho batzuen azpitik pasatzen ari zirenez, hala esan zuen, sorbaldak kuzkurtuz: — «Horra hor Mme Lehoussais, horrek ere gizon gazte bat hartu beharrean...» Féliciték ez zuen entzun gainerakoa; zaldiak trostan zihoazen, astoa laukoan; guztiek bidetxior batetan barrena hartu zuten, erromarate bat jiratu zen, bi mutil agertu ziren, eta simaurtegiko usuri erretenaren aurrean jaitsi ziren, atariko atalasean bertan.

Liébard emaztea, bere ugazaba anderea hautematean, poza erakusten oparoa izan zen. Atera zion bazkarian bazen solomua, tripakiak, odolkia, oilaskoa saltsan, sagardo apartsua, konpotazko tarta eta aranek patarretan, eta dena laguntzeko kortesiak Andereari, osasunez mejoratu baitzirudien, Andereñoari «neska galanta» egina, Paul jaunari aparteko mutil «sendoa», haien aiton-amona zenduak ahaztu gabe, Liébardarrek ezagutu baitzituzten, belaunaldi askodanik familiaren zerbitzari izaki. Etxaldeak bazeu-

kan, beraiek bezala, zahartasun izakera bat. Sabaiko habeak pipiak jota zeuden, hormak kearez beltzak, kristalak hautsez grisak. Haritzezko alase batek molde orotako tresnak zeuzkan, pertzak, platerak, eztainguzko katiluak, otsozepoak, axurientzat erdigailuak; egundoko xiringa batek barre eragin zien haurrei. Hiru sarobeetan zuhaitz bat bera ere etzegoen ipurdian ardagaia edo adarretan mihura mordoa etzuenik. Asko haizeak etzanak zituen.. Gerritik kimu berriak emanak zituzten; eta denak abaildurik zeuden hango sagar ugarien pean. Lastozko teilatuek, balusa nabarraren antzekoak eta lodieraz desberdinak, ekaitzik gogorrenei eusten zieten. Gurditeria alabaina hondamenean lur jotzen ari zen. Mme Aubainek esan zuen ikusiko zuela, eta abereak berriro bastatzeko agindua eman zuen.

Artean beste orduerdi bat egin zuten Trouvillera heltzen. Karabana txikia jaitsi eta oinez abiatu zen *Ecores* pasatzeko; labar bat zen itsasuntziei gaina hartuz; eta hiru minutu geroago, kaiaren bukaeran, *Agneau d'ore*ko atarian sartu ziren, David andrearen baitan.

Virginie, lehen egunetatik hasita, hainbeste-ko ahuldurarik gabe sentitu zen, aire aldaketa-  
ren eta bainuen eraginaren ondorio. Bainujantzi  
baten faltan, kamisoiez hartzen zituen; eta bere  
neskameak jazten zuen berriro, bainuzaleek era-  
biltzen zuten aduana-txetola batean.

Arratsaldean, harkaitz beltzez bestaldera joa-  
ten ziren astoarekin, Hennequeville aldera.  
Bideak, hasieran, gorantz egiten zuen, parke  
batetako belardien gisako lurralde lepakatsuren  
artean, gero, belarsoroak eta labore soroak tar-  
tekatzen ziren gainzelai batera heltzen zen. Bide  
bazterrean, sasien nahas-mahasian, gorostiak  
altzatzen ziren; han-hemenka, zuhaitz eihar han-  
diren batek aire urdinean saihes-trabeskak egi-  
ten zituen adarrekin.

la beti belardi batean hartzen zuten atsedean,  
Deauville ezkerretara zutela, Le Havre eskuine-  
tara eta aurrean itsaso zabala. Hura eguzkiz diz-  
diratsu egoten zen, ispilu bat bezain leun, hain  
emeki non, apenas entzuten baitzen haren mur-  
murioa; txolarreek ezkutuan txioka egiten zuten,  
eta zeruaren sabai hondogabeak gainestaltzen  
zuen hori guztia. Mme Aubain, eserita, bere jos-

tura lanean aritzen zen; Virginiek haren ondoan  
ihiak hirubihurkatzen zituen; Féliciték izpiliku  
loreak jorratzen zituen; Paulek, aspertzen zenez,  
joan egin nahi izaren zuen.

Beste batzutan, Toucques itsasuntziz pasatu-  
rik, txirla bila ibiltzen ziren. Maria beherak deses-  
talirik uzten zituen itsaslakatzak, lapak, medu-  
sak; eta haurrak korrika ibiltzen ziren, haizeak  
zeramatzan bits malutak harrapatzen. Olatu  
lokartuak, harea gainera eroriz, hondartzan  
barrena deskueztatzen ziren; hura bistak ema-  
ten zuen heinean hedatzen zen, baina lehor  
aldetik haremuntoak zituen muga Maraisetik  
bereizten zutelarik, hipodromo formako belaze  
zabala hura. Handik barrena itzultzen zirenean,  
Trouville, han hondoan aldats hegian, urrats  
bakoitzeko handiagoa bihurtzen zen, eta bertako  
etxe desberdin guztiekin desordena alai batean  
jalgitzen zela zirudien.

Bero handiegia egiten zuen egunetan, ez  
ziren beren gelatik irtetzen. Kanpoko argitasun  
itsugarriak argizko barrak estekatzen zituen  
leihosareko xafla arrear. Inolako zaratarik ez  
herrixkan. Behean, espaloian, inor ez. Isiltasun

ihaurtu horrek handiagotu egiten zuen gauzen sosegua. Urrunean, istinkarien mailuek untzi-hondoak taponatzen zituzten, eta haizeño sargoriak alkitranaren kiratsa ekartzen zuen.

Jolasketarik nagusiena txalupen itzulera izaren zen. Balizak iraganik zituzten orduko, mangunatzen hasten ziren. Haien oihalak masten bi herenetara jaisten ziren; eta, mesana baloi baten gisa puzturik, aurrera egiten zuten, uhien palastadan labaintzen ziren, portuaren erdiraino, eta han bat-batean aingura erortzen zen. Segituan untzia kaiaren kontra kokatzen zen. Marinelek karelaren gainetik botatzen zituzten arrain dardaratiak; karreta zerrenda bat zain izaten zuten, eta emakumeak algodoizko txanoz jantziarik saskiak hartzera eta beren gizonak besarkatzera oldartzen ziren.

Haietariko bat, egun batez, Féliciték hurreratu zitzaion, eta handik berehala sartu zen gelan, zeharo kontentu. Ahizpa bat aurkitua zuen; eta Nastasie Barette, Lerouxen emaztea, han agertu zen, iñutsein bat bularrean zuela, eskuin eskutik beste haur bat, eta ezker aldean muturmotz txiki

bat ukabilak gerrondoan eta txapela belarri gainean.

Ordu laurden baten buruan, Mme Aubainek kanpora bidali zuen.

Sukaldearen inguruetan topatzen ziren beti, edota egin ohi zituzten pasioetan. Senarra ez zen azaltzen.

Féliciték haienganako txera hartu zuen. Burusi bat erosi zien, eta alkandorak, eta sutontzi bat; bistan da esplotatu egiten zutela. Bigunke-ria horrek asaldu egiten zuen Mme Aubain, zeinak bestalde ez baitzituen atsegin iloba haren atrebentziak, —bere semeari hika egiten baitzion—; eta, Virginiek eztulka egiten zuenez eta urtaroa jada ona ez zenez, Pont-l'Évêquera itzuli zen.

Bourais jaunak eman zizkion ikastetxe baten hautaketarako argibideak. Caengoa ematen zen hoberentzat. Paul hara bidali zuten, eta gizamoldez egin zituen bere agurrak, adiskideak izango zituen etxe batera bizitzera joateaz pozik.

Mme Aubainek etsipenez hartu zuen bere semearengandik urruntzea, nahitaezkoa zelako. Virginiek gero eta gutxiago pentsatu zuen har-



taz. Féliciték penaz jasaten zuen haren zarata-  
ren falta. Baina zeregin bat heldu zitzaion leko-  
rabitetarako; Eguberriez gero, berak eraman  
zuen egunero neskato txikia dotrinara.

### III

Atean erreberentzia egin ondoren, eliza barne altuaren pean barrena egiten zuen aulki zerrenda bikoitzaren erditik, Mme Aubainen bankua irekitzen zuen, eseritzen zen, eta bere inguruan pasiatzen zituen begiak.

Mutikoak eskuinetan, neskatoak ezkerretan, betetzen zituzten koruko eserlekuak; apaiza zutik egoten zen atriletik hurbil; absideko leihardi batean Izpiritu Santuak menpean hartzen zuen Amabirjina; beste batek belauniko azaltzen zuen Jesus Haurraren aurrean, eta, tabernakuluaren atzean, zurezko talde batek San Mikel irudikatzen zuen herensugealurreratzen.

Abadeak lehenik Historia Sakratuaren laburpen bat egin zuen. Féliciték paradisia ikusi uste zuen, eta uholdea, Babelgo dorrea, hiriak sutan, hiltzen ari ziren herriak, idoloak eratsirik; eta liluramendu horretatik Jaun Gorenarenganako begirunea gorde zuen, eta haren haserrearen beidurra. Gero, Pasioa entzutean nigar egin zuen. Zergatik gurutzatu zuten ordea hura, haurrak maite

zituena, jendetzari jaten ematen ziona, itsuak sendatzen zituena, eta, otzantasunez, pobreen arrearan estalpe batetako simaurraren gainean jaio nahi izan zuen hura? Ereintzak, uztak, tola-reak, Ebangelioak aipatzen dituen eguneroko gauza horiek guztiak, bere bizitzan kausitzen ziren; Jainkoaren iragapenak santifikatu egin zituen; eta laztankiroago maire izan zituen bildotsak Bildotsarenganako maitasunagatik, eta usoak Izpiritu Santuarenagatik.

Lan izaten zuen haren pertsona irudikatzen; zeren hura ez baitzen txoria bakarrik, baizik eta sua ere, eta beste batzutan hatsa. Haren argia da agian zingira bazterretan gauzez hegabiraka ibiltzen dena, haren arnasa hodeiak bultzatzen dituena, haren ahotsa kanpaiak harmoniatsu bihurtzen dituena; eta adorazio betean egoten zen, hormen freskuraz eta elizako narotasunaz gozatzen.

Dogmei dagokienez, ez zuen ezer ulertzen, ez zen saiatu ere egin ulertzen. Abadeak berba egiten zuen, hurrek errezitatu egiten zuren, hura azkenerako loak hartzen zuen; eta bat-batean esnatzen zen, haiek joaterakoan beren

eskalaproiak harlauzetan klaskarazten zituzte-  
nean.

Era horretan gertatu zen, entzutearen pode-  
rioz, dotrina ikasi zuela, haren hezkuntza erlijio-  
soa gaztaroan zabarturik utzia izaki; eta handik  
aurrera Virginieren usuario guztiak imitatu zituen,  
hark bezala barau egiten zuen, harekin batera  
konfesatzen zen. Bestaberri egunean, biek elka-  
rrekin egin zuten aldaretxo bat.

Lehen jaunartzeak alde z aurretik herstura-  
tzen zuen. Oinetakoengatik, errosarioarengatik,  
liburuarengatik, eskuxorroengatik artegatu zen.  
Zer nolako dardarizoz lagundu zion haren amari,  
hura jazten!

Meza osoan zehar, larridura sentitu zuen.  
Bourais jaunak koruaren alde bat estaltzen zion;  
baina justu aurrez aurre, birjina taldeak beren  
estalki behehituen gainean koroe zuriak zerama-  
tzatela, elurzelai baten gisakoa formatzen zuten;  
eta urrunetik ezagutzen zuen txikitxo laztana  
haren lepo lirainagoa eta haren jarrera barnera-  
tua medio. Kanpaiak dilinda jo zuen. Buruak  
makurtu egin ziren; isiltasuna izan zen. Organua-  
ren azantzari jarraiki, txantreek eta jendetzak

*Agnus Dei* abestu zuten; gero mutikoen zerrenda abiatu zen; eta, haien segidan, neskatoak zutitu ziren. Pausoz pauso, eta eskuak baturik, argiz betetako aldarerantz joan ziren, lehen mailan belaunikatu ziren, batak bestearen ondoren hostia hartu zuten, eta ordena berean itzuli ziren beren belaunikalekuetara. Virginieren txanda izan zenean, Féliciték burua aurreratu zuen hura ikusteko; eta, benetako samurtasunek ematen duten irudimenaz, haur hura berbera zela iruditu zitzaion; haren aurpegia berea bilakatzen zen, haren soinekoz jantzirik zegoen, bihotzak taupaka egiten zion bular barruan; ahoa irekitzeko unean, betazalak itxiz, zorabiatzeko zorian izan zen.

Biharamonean, goizean goiz, sakristian aurkeztu zen, apaiz jaunak jauneman ziezaion. Deboziaz hartu zuen, baina ez zituen dastatu aurreko eguneko eztitasun haiek berak.

Mme Aubainek bete-beteko pertsona bihurtu nahi zuen bere alaba; eta, Guyotek ez ingelesa ez musika erakutsi ezin zizkionez, Honfleurko Urtsulinetan barnetegian sartzea deliberatu zuen.

Haurrak ez zuen ezer argudiatu. Féliciték hasperen egiten zuen, Madame sentimenduga-beko kausituz. Gero pentsatu zuen, etxekoandreak, agian, arrazoi zuela. Gauza horiek gainditu egiten zuten bere trebantza.

Azkenik, egun batez, karroza zahar bat gelditu zen ate aurrean; eta Mademoiselleren bila zetorren moja bat jaitsi zen hartatik. Féliciték jaso zuen ekipaia inperialera, zenbait aholku eman zion gurdigizonari, eta kofrean sei konfitura poto eta dozena bat udare ipini zituen, brioleta xorta batekin batera.

Virginie, azken momentuan, zotin handika hasi zen; bere ama besarkatzen zuen eta amak bekokian musukatzen zuen errepikatuz: — «Ea ba! izan adoretzu! izan adoretzu!» Atemaila igo zen, kotxea abiatu egin zen.

Orduan Mme Aubainek ondoeza izan zuen; eta arratsean haren lagun guztiak, Lormeau senar-emazteak, Lechaptois anderea, Rochefeuille andereño *hai*ek, Houpevilleko fauna eta Bourais etorri ziren etxera hura kontsolatzera.

Alaba falta izatea nahigabe handikoa izan zitzaion hasieran. Baina astean hiru aldiz haren

gutun bat jasotzen zuen, beste egunetan hari idazten zion, jardinean pasieran ibiltzen zen, zerbait irakurtzen zuen, eta era horretan betetzen zuen orduen hutsunea.

Goizean, ohituraz, Félicité Virginieren gelan sartzen zen, eta paretei so egoten zen. Aspertu egiten zen jada haren adatsa orrazterik, haren botinak lotzerik, ohean hura inguratzerik ez izateagatik-haren aurpegi polita etengabe ez ikusteagatik, elkarrekin ateratzen zirenean jada eskutik ez hartzeagatik. Bere zeregin gabezia, brodatzen saiatu zen. Bere behatz baldarregiek albuinuak puskatzen zituzten; ez zen ezertarako gauza, loa galdua zuen, bere hitza erabiltzeko, «akabo» zegoen.

«Denborapasarako», bere iloba Victor etxean hartzeko baimena eskatu zuen.

Hura igandean etortzen zen mezaren ondoren, masailak gorriztak, bularra biluzi, eta zeharkatua zuen landaren usaina zabalduz. Féliciték berehala mahaia ipintzen zuen. Batak bestearen aurrez aurre bazkaltzen zuten; eta, gastua murrizteko berak ahal zen gutxiena janez, bestea hainbestearaino asebetetzen zuen non, azke-

nerako loak hartzen baitzuen. Bezperetarako lehen kanpandeiarekin batera iratzarri egiten zuen, galtzak eskubilaz pasatzen zizkion, gorba-ta korapilatzen zion, eta elizara joaten zen, ama-harrotasunez haren besoan sostengu hartuz.

Gurasoek hari betiere enkargatzen zioten bertatik zertxobait atera zezan, azukre beltz paketeren bat zela, xaboia zela, patarra zela, noizean behin baita dirua ere. Arropa zaharrak ekartzen zituen adabatzeko; eta Féliciték onartu egiten zuen lan hori, hura berriro etortzera behartuko zuen abaguneaz zoriontsu.

Abuztuan, aitak Manuel bidali zuen lanera.

Oporretako garaia zen. Haurren etxeratzeak kontsolatu zuen. Baina Paul apetati ari zen bihurtzen, eta Virginiek jadanik ez zuen hika hitzegin ziezaion adinik, eta horrek eragozpena, barrera sortzen zuen Félicité eta paren artean.

Victor batean Morlaixera, hurrengoan Dun-kerquera, gero Brightonera joaten zen; bidaia bakoitzeko bueltan, hark opari bat ekartzen zion. Lehenengoan, txirlazko kaxa bat izan zen; bigarrenean, kafe kikara bat; hirugarrenean, panpina handi bat espezia-opilezkoa. Mutil ederra ari zen



egiten, kaizu bikaina zuen, bibote pixka bat, begi samur zintzoak, eta larruzko kapela txiki bat, atzerantz jantzia pilotu baten gisa. Marinel hizkeraz nahasbeteriko istorioak kontatuz gozatzen zuen Félicité.

Astelehen batez, 1819ko uztailaren 14a (emakumeari ez zitzaion data hori ahaztuko), Victorrek jakitera eman zuen bidaia luzetarako enplegatu zutela, eta, biharamon hurrengo gauean, Honfleurko pakebotez, bere goleta hartzera joango zela, laster itsasoratzekotan baitzen Havretik. Bi urte egingo zuen, agian, hortik zehar.

Horrenbestearainoko ausentziaren ikuspegiak atsekabetu egin zuen Félicité; eta hari beste behin ere agur egitearren, asteazken arratsean, Madamen afariaren ondoren, eskalaproinetan oinak sartu zituen, eta Pont-l'Évêque Honfleurtik aldentzen duten lau legoak irentsi zituen.

Calvaire aurrera iritsi zenean, ezkerrera hartu ordez, eskuinera hartu zuen, lantegien artean galdu zen, bidea atzera egin zuen; galde egin zienek presaka ibiltzeko iradoki zioten. Itsasuntziz betetako urzelaiaren bira egin zuen,

amarren kontra oztopatzen zen; gero terrenuak behera egin zuen, argiak elkarren artean gurutatu ziren, eta zoratu egin zela uste izan zuen, zeruan zaldiak hautematean.

Kaiaren ertzean beste batzuek irrintzika egiten zuten, itsasoak izuturik. Altxatzen zituen garabimutur batek itsasuntzi batera jaisten zituen, eta han bidaiariak elkarri oldarka mugitzen ziren sagardo upela, gazta saski eta ale zakuren artean; oiloak kakarazka entzuten ziren, kapitaina biraoka art zen; eta untzimutil bat geldi zegoen ukondoak karelertzean tinkaturik, horretaz guztiaz axola gabe. Féliciték, ez baitzuen ezagutu, garraisi egiten zuen: «Victor!». Hark burua jaso zuen; emakumea abailan abiatu zen, noiz eta bat-batean zaldaina erretiratu zutenean.

Emakume batzuk kantari zirgatzten zutela, pakebotea portutik irten zen. Haren untzi-kroskoak karranka egiten zuen, uhin zakarrek haren branka zigorkatzen zuten. Bela biratu egin zen, iada ez zen inor ikusi; eta, ilargiak zilarreztaturiko itsaso gainean, betiere zurbilkatzen zihoan

mantxa beltz bat egiten zuen, suntsitu egin zen, desagertu egin zen.

Féliciték, Calvaireren ondoan pasatzean, Jainkoari gomendatu nahi izan zion gehien txeratzen zuen hura; eta denbora luzez aritu zen otoitzean, zutik, aurpegia nigarrez blai, begiak hodeietarantz. Herria lo zegoen, aduanazainak ibilian zebiltzan; eta tira etengabe erortzen zen aldaparroaren atekako zuloetatik, urlaster baten zarataz. Ordubiak jo zuten.

Mintzatokia ez zen irekiko argia baino lehen. Atzerapenak, jakina, gogait eragingo zion Madameri; eta, beste haurra besarkatzeko haren desioa arren, itzuli egin zen. Ostatuko neskak esnatzen ari ziren, hura Pont-l'Evêquen sartzen ari zela.

Mutiko gaisoak hilabetetan zehar itsasoan barrena joan beharko zuen beraz! Ordurarteko bidaiak ez zuten ikaratu. Inglaterratik eta Bretainatik, bueltan etortzen ziren; baina Amerika, Koloniak, Irlak, hori baezpako eskualde batean galdurik zegoen, munduaren beste puntan.

Ordudanik, Féliciték bere ilobaz bakarrik pentsatu zuen. Egun eguzkitsuetan, egarriz oinaze-

tzen zen; ekaitza egiten zuenean, harentzat oinazkarraren beldur izaten zen. Tximinian burrunbatzen zuen eta teilatarbelak eramaten zituen haizea entzutean, hura ikusten zuen erauntsi horrek berak astindurik, masta puskatu baten goian, gorputz osoa atzerantz, bitsezko mantu baten pean; edota —geografia estandunaren oroitzapena—, basati batzuk ari ziren hura jaten, baso batetan tximuek harrapaturik, hondartza desertu batetan barrena hiltzeko zorian. Eta inoiz ez zen mintzatzen bere kezka horiez.

Mme Aubainek bazituen beste batzuk bere alabari buruz.

Hura bihozbera, baina beraxka zela kausitzen zuten mojatxoek. Hunkidurarik txikienak bere onetik ateratzen zuen. Pianoa bertan behera utzi beharra izan zen.

Haren amak korrespondentzia arautua exigitzen zuen konbentuaren aldetik. Goiz batez postaria ez zen etorri, hura kezkatu egin zen; eta salan zebilen, bere besaulkitik leihora. Benetan itzela zen hori! lau egun hartan berririk ez!

Hura exenpluaren bidez kontsola zedin, Félicité hala esan zion:

— «Nik, Madame, sei hilabete bada jaso ez dudala!...»

— «Norengandik ba?...» Neskameak eztiki ihardetsi zuen:

— «Ba... nire ilobarengandik!»

— «A! zure iloba!». Eta, sorbaldak altxatuz, Mme Aubainek bere joan-etorriari ekin zion berriro, zera adierazi nahiez bezala: «Nik ez nuen hartaz pentsatzen!... Eta gainera, ni horretaz trufatu egiten naiz! untzimorroi bat, arlote bat, erregalu ederra!... nire alaba ordea... Pentsa gero!...»

Félicité, laztasunean hazia izan arren, gaitzitu egin zen Madamen kontra, gero ahaztu egin zuen.

Zeharo normala iruditzen zitzaion neskatoari zegokionean burua galtzea.

Bi haurrek garrantzi berdina zeukaten; haren bihotzeko lotura batek batzen zituen biak, eta haien patuek bat bera behar zuten izan.

Botikarioak aditzera eman zion, Victorren untzia La Havanara heldua zela. Kazeta batetan irakurria zuen berri hori.

Zigarropuruak medio, La Havana, erre eta erre beste gauzarik egiten ez den herrialde gisa irudikatzen zuen Féliciték bere artean, eta Victor han zebilen beltzen arrear tabako lainoz inguratuturik. Itzul al zitekeen handik «beharrean gertatu ezker» lehorreko bidez? Zein distantziatara zegoen Pont-l'Évêquetik? Hori jakitearren, Bourais jaunari galdetu zion.

Hark atzeman zuen bere atlasa, eta gero luzeerei buruzko azalpenei ekin zien; jakitunziri irribarre eder bat zeukan Félicitéren txundiduraren aurrean. Azkenik, bere arkatz puntaz, orban biribilkatsu baten urratu batzutan puntu beltz bat seinalatu zuen, erantsiz: «Horra hor». Félicité maparen gainean makurtu zen; marra koloretsuren sare hark nekatu egiten zuen bere bista, hari ezer irakatsi gabe; eta zerk artegatzen zuen esatera Bouraisek gonbidaturik, Victor bizi zen etxea erakus ziezaion eskatu zion hark. Bouraisek besoak jaso zituen, doministiku egin zuen, erruz barre egin zuen; molde horretako xalotasu-

nak kitzikatu egiten zion alaitasuna; eta Féliciték ez zuen ulertzen horren arrazoia, —agian bere ilobaren erretratua ere ikustea espero baitzuen, bere adimena bain motza izaki!

Hamabost egun geroago izan zen, ohi bezala merkatu orduan, Liébard sukaldean sartu zenean, eta bere koinatuak igorri zion gutun bat eman zion eskura. Haiek biek ere irakurtzen ez zekitenez, neskameak etxekoandrearengana jo zuen.

Mme Aubainek, orratz-puntuak kontatzen ari zen artilelana alboan utzi zuen, kartazala ireki zuen, dardarizoa izan zuen, eta, ahots baju batez, begirada sakon batekin:

— «Ezbehar bat da... iragartzen zaizuna. Zure iloba...»

Hila zen, hartan ez zen beste gehiagorik esaten.

Félicité aulki baten gainean erori zen, burua errenkadaren kontra sostengatuz, eta bat-batean zurigorri bilakatu ziren betazalak itxi zituen. Gero, bekokia abaildurik, eskuak zintzilik, begia tinko, tarteka errepikatzen zuen:

— «Mutiko gaixoa! mutiko gaixoa!»

Liébardek suspirioka hasperenez behatzen zion. Mme Aubainek dardarka egiten zuen apur bat.

Hark proposatu zion bere ahizpa ikustera joan zedin, Trouvillera.

Féliciték, keinu batez, horren beharrik ez zeukala erantzun zuen.

Isilaldi bat izan zen. Liébard gizarajoak kome-nikotzat eman zuen erretiratzea.

Orduan Féliciték esan zuen:

— «Hori berdin zaie, haiei!»

Berriro burua erori zitzaion; eta ezarian-ezarian, aldian behinka, jostun mahai gaineko orratz luzeak altxatzen zituen.

Emakume batzuk iragan ziren ataritik balarte batekin arropa tantajarioan zuela.

Leiharretatik haiek hautematean, bere lixiba gogoratu zitzaion; bezperan joa zuenez, gaur ui heldu beharra zegoen; eta gelatik kanpora Joan zen.

Haren lixibohola eta tiña Toucques bazterrean zeuden. Urertzera alkandora pila bat bota zuen, bere maukak goititu zituen, astingailua hartu zuen; eta hark jotzen zituen kolpe gogo-



rrak alboko beste jardinetan ere entzuten ziren. Belazeak hutsik zeuden, haizeak kizkurtzen zuen ibaia; hondoan, belar luzeak makotzen ziren han, urgainean gorpuren adatsak gisa. Hark oinazeari eutsi egiten zion, arratserarte oso adoretzu izan zen; baina, bere gelan, bere buruari jaregin zion, ahozpez bere koltxoiaren gainean, aurpegia burkoan, eta bi ukabilak lokien kontran.

Askoz beranduago, Victorren kapitainaren beraren bidez, jakin zituen haren fingaitzaren inguruabarrak. Ospitalean odolateratze gehiegi egin zioten, sukar horiarengatik. Lau medikuk zeukaten aldiberean. Derrepentean hila zen, eta buruzagiak esan omen zuen:

— «Horra! beste bat ere!»

Haren gurasoek basatiki tratatu izan zuten beti. Nahiago izan zuen haiek gehiago ez ikusi; eta besteek ez zuten eman inolako aurrerapausorik, ahazturaz, edota zikoitzen gogorreriaz.

Virginie ahultzen ari zen

Hersturak, eztula, etengabeko kalentura eta masailtako ubeldurak, sakoneko gaitzen baten salatari ziren. Poupart jaunak Provencen egonaldia bat aholkatu zuen. Mme Aubain horretara deli-

beratu zen, eta berehala jaso zukeen alaba berriro etxean, Pont-l'Évêqueko klimarengatik izan ezan. Asteartero komentura eramaten zuen kotxe-alokatzaile batekin egin zuen tratua. Han bada jardinean, Seine ibaia ikusten den terraza bat. Virginiek han pasiatzen zuen amaren besotik, mahats-aihenetatik eroritako horbelen gainetik. Eguzkiak tarteka hodeiak zulatuz betazalak kliskatzera behartzen zuen, urrunean belak eta, Tancarvilleko gaztelutik hasi eta Havreko faroetaraino, ortzemuga osoa begiztatzen zituen bitartean. Ondoren atsedean hartzen zuten pendizaren pean. Haren amak erdietsia zuen Malagako upelatxo bat ardo bikaina; eta, moxkorbegi jartzea pentsatu hutsean ere barrez, hartatik bi hurrupatxo edaten zituen, ez gehiago.

Haren indarrak berriro ziren. Udazkena eztiki iragan zen. Féliciték lasaitu egiten zuen Mme Aubain. Baina arrats batez, han inguruan mandatu bat egiten izana zen batetan, Poupart jaunaren kabrioleta topatu zuen atarian; eta hura sarreran zegoen. Mme Aubain bere kapela lotzen ari zen.

— «Emaidazu nire oinberogailua, nire poltsa, nire eskularruak; arinago ba ordea!»

Virginiek andaerraietako eria zeukan; agian etsipenezkoa zen.

— «Ez oraindik!» esan zuen medikuak; eta biak kotxera igo ziren, zurrunbiloka zebiltzan elur maluten pean. Gaua bazetorren. Hotz handia-egiten zuen.

Félicité elizara oldartu zen, kandela bat piztera. Gero kabrioletaren atzetik korrika abiatu zen, eta handik ordubetera harrapatu zuen, atzeko aldetik arinki salto egin zuen, eta han zihoan bizkarburdinei heldurik, burutazio bat etorri zitzaionean: «Atariko atea ez zegoen itxita! eta lapurrak sartuko balira?». Eta jaitsi egin zen.

Biharamunean, egunsentia orduko, doktorearen etxean aurkeztu zen. Hura itzulia zen, eta berriro landetara joana. Gero Félicité ostatuan geratu zen, ezezagunen batzuek gutunen bat ekarriko zuten ustetan. Azkenik, eguna zabal-tzean, Lisieuxerako dilijentzia hartu zuen.

Komentua kalematur aldapatsu baten hondotan aurkitzen zen. Erdialdean, soinu bitxi batzuk entzun zituen, hilkanpaia. «Besteren batengatik

da» pentsatu zuen; eta Féliciték bortizki tiregin zion atemailuari.

Minutu askoren buruan, oskiak herrestatu ziren, ate-zirriztua ireki zen eta moja bat azaldu zen.

Mojatxoak urrikalmendu aire batez esan zuen «haurra orduantxe joana zela». Aldi berean, Saint-Leonardeko hilkanpaiak jotzen ari ziren.

Félicité heldu zen bigarren solairura.

Gelaren atalasetik bertatik, Virginie ikusi zuen bizkarrez luze etzanda, eskuak bildurik, ahoa zabalik, eta burua atzerantz harengana alderaturiko gurutze beltz baten pean, errezel geldi-geldien artean, ez haren aurpegia bezain zurikailak. Mme Aubainek, besoen arrear hel-tzen zuen ohearen oinean, agonia zotinak jalgitzen zituen. Superiora zutik zegoen, eskuinean. Komodaren gainean hiru argizangok orban gorriak egiten zituzten, eta lainaideak zurizkatzen zituen leihoak. Moja batzuek eramane zuten Mme Aubain.

Bi gauetz, Félicité ez zen lekutu hilaren ondolik. Errezo berak errepikatzen zituen, ur bedein-katua jaurtikitzen zuen maindireen gainera,

berriro eseri egiten zen, eta hari so egoten zen. Lehen beila-gauaren bukaeran, haren aurpegia horitu egin zela ohartu zen, ezpainak urdinkatzen ari ziren, sudurra matxartzen, begiak hondoratzen. Askotan mun eman zien; eta ez zukeen egundoko harridurarik jasango baldin Virginiek ireki balitu; tankera horretako arimeneztat naturaz gaindikoa zeharo sinplea da. Haren apainketa egin zuen, beztitu zuen, zerraldo barruan eizan zuen, koroe bat ipini zion, adatsak hedatu zizkion. Horailak ziren, eta haren adinerako luzeeran apartekoak. Féliciték hartatik ile-sorta handi bat moztu zuen, eta horren erdia bere bularrartera labaindu zuen, hura sekula ez jalgitzera deliberaturik.

Gorpua Pont-l'Évêquera eraman zen, hilkarrozari kotxe itxi batean jarraitzen zion Mme Aubainen nahiei jarraiki.

Meza ondoren, arrear hiru ordu laurden behar izan ziren kanposantura iristeko. Seizioburu Paul zihoan eta nigarزتinka egiten zuen. Bourais jauna zen haren atzetik, ondoren biztanle nagusienak, emakumeak, mantu beltzez estalirik, eta Félicité. Bere ilobaz pentsatzen zuen,

eta, hari ohore horiek eskeini ezin izan zizkionez, emendiozko tristura ere bazeukan, bestearekin batera hobiratu balute bezala.

Mme Aubainen etsipena hondogabea izan zen.

Lehenik Jainkoaren kontra erreboltatu zen, hari bere alaba kendu izanagatik injustu kausituz —berari inoiz gaizkirik egin ez zuenari, eta kontzientzia hain garbi zuenari! Baina ez! eramana behar izango zukeen Midira. Beste doktore batzuek salbatua zuketena! Bere burua akusatzen zuen, alabarekin elkartu nahi zuen, larriduraz garraisi egiten zuen bere ametsen erdian. Batek, batik bat, obsesionatzen zuen. Bere senarra, marinel baten gisa jantzirik, bidaia luze batetik zetorren, eta nigarrez esaten zion Virginie eramateko ordena hartu zuela. Orduan ados jartzen ziren non edo non ezkutalekuren bat aurkitzeko.

Behin batez, jardinetik etxeratu zen aztoraturik. Orduantxe bertan (tokia seinalatzen zuen) aita eta alaba agertu zitzaizkion bata bestearen atzetik, eta ez zuten ezer egiten; so egiten zioten.

Dexente hilabetez, bere gela barruan geratu zen, egonean. Félicité predikuan aritzen zitzaion eztiki; bere buruari eutsi beharrean zegoen bere semearengatik, eta bestearengatik, «alabaren» oroimenez.

— «Bestea?» hasten zen Mme Aubain, esnaturik bezala. «A! bai!... bai!... Zuk ez duzu ahazten!».

Kanposantuaren zeharraipamena, berari zehatz-mehazki debekatu egin baitzioten. Félicité egunero joaten zen hara.

Lauretan puntuan etxe ertzetan barrena pasatzen zen, aldapa igotzen zuen, barrera irekitzen zuen, eta Virginieren hilobiaren aurrera heltzen zen. Hura marmol arroxazko zutabe txiki bat zen, behean harlauza bat zuela, eta inguruan kateak jardintxo bat itxiz. Landare-arloak desagertu egiten ziren lorezko estalki baten pean. Hark haien hostoak ureztatzen zioten, lurrondarra berritzen zuen, belauniko jartzen zen lurra hobeto lantzeko. Mme Aubainek, hara etorri ahal izan zuenean, hartaz lasaiturik sentitu zen, kontsolamendu gisako zer bait.

Gero urteak joanean joan ziren, guztiak antzekoak, eta jai handien aldiak aldiko etorrera beste gertakirik gabe: Pazkoa, Jasokundea, Santu Guztiena. Barneko gertaerek data bat markatzen zuten, eta aurrerantzean haien aipumugara jotzen zen. Horrela, 1825. urtean bi leiharginek apaindu zuten ezkaratzea; 1827an, teilatu zati batek, atarira erori eta ia hil zuen gizon bat. 1828ko udan, Madameri suertatu zitzaion ogi bedeinkatua eskaintzeko txanda; Bouraisek, garai inguru horretan, misterioski leku egin zuen; eta aspaldiko ezagunak piskana-piskana joan egin ziren: Guyvot, Liébard, Mme Lechaptois, Robelin, osaba Gremenville, aspaldi hartan perlesiak joa.

Gau batez, posta-kutxaren gidariak jakitera eman zuen Pont-l'Évêquen Uztaileko Iraultzaren berri. Handik egun gutxi barru, suprefeta berria izendatu zuten: Larsonnièreko baroia, Amerikan kontsul-ohia, eta hark etxean, bere emazteaz gain, bere koinata hiru neska jada nahiko handirekin zituena. Belardi gainean ikusi ohi zituzten, soineko zabalez jantzirik; haiek beltz baten eta loro baten jabe ziren. Mme Aubainek haien bisi-



ta izan zuen, eta faltarik gabe egin zien berak ere bueltakoa. Nahiz eta haiek oso urrunetik hauteman, Félicité korrika joaten zitzaion etxe-koandreari abisatzera. Baina gauza bat bakarra zen hura hunkitzeko gai, bere semearen gutunak.

Hark ezin zuen jarraitu inolako karrerarik, tabernazuloetan soraio sarturik zebilenez. Amak ordaintzen zizkion zorrak; hark beste gehiago egiten zituen; eta Mme Aubainek, leihoaren ondoan puntua eginez, jalgitzen zituen suspirioak, sukaldean bere txirrika jiratzan ari zen Félicité-rengana heltzen ziren.

Elkarrekin egiten zituzten pasiuak kereta artean barrena; eta beti Virginiez aritzen ziren solasean, beren artean galdetuz ea halako gauza hari atsegina izango ote zekioken, halako abagunetan hark seguruenik zer esango zukeen.

Haren gauzatxo guztiek apal bat hartzen zuten bi ohetako gelan. Mme Aubainek ahalik eta gutxienetan arakutzen zituen. Udako egun batez, etsi egin zuen, eta arasatik pinpilinpauxak hegaztatu ziren.

Haren jantziak zerrendan zeuden, hiru mari-muxal, pirikari batzuk, etxetresnak eta erabil-tzen zuen pixontzia zeuden apal baten pean. Halaber erretiratu zituzten gonak, galtzerdiak, mukizapiak, eta bi oheen gainean zabaldu zituz-ten, berriro tolestatu baino lehen. Eguzkiak argi-tzen zituen objektu hutsal horiek, mantxak iku-saraziz, eta gorputzaren, mugimenduek eragin-dako zimurdurak ere bai. Airea beroa eta urdina zen, zozo bat kantuan ari zen, dena ez-titasun sakon batean bizi zela zirudien. Pelutxezko kape-la txiki bat aurkitu zuten, ile luzeduna, kolore marroia; baina bi-piak erabat janda zegoen. Féli-citék beretzat eskatu zuen. Haien begiak bata besteari so tinkatu ziren, malkoz bete ziren; azkenik etxekoandreak besoak zabaldu zituen, neskamea haietara jaurtiki zen; besarkatu egin ziren, biak berdintzen zituen laztan hartan beren oinazea gozatuz.

Haien bizitzan lehen aldia zen, Mme Aubain izakera irekikoa ez izaki. Mesede bat bailitzan eskertu zion Féliciték, eta handik aurrera piztia baten leialtasunez eta benerazio erlijiosuz txe-ratu zuen.

Haren bihotzaren zintzotasuna garatu egin zen.

Errejimendu baten martxako danborrak kalean entzuten zituenean, ate aurrean jartzen zen sagardo pitxar batekin, eta edaten eskaintzen zien soldaduei. Koleradunak zaindu zituen. Poloniarrek babesten zituen; eta haietariko bat izan ere izan zen aldarrikatzen zuena harekin ezkondu nahi zuela. Baina haserretu egin ziren; zeren goiz batez, aimaritako elizkizunetatik itzultzean, sukaldean topatu baitzuen, bertara sartu eta ozpin saltsan prestatutiko okela lasai jaten.

Poloniarren ondoren, Colmiche zaharra izan zen, 93an izugarriak egin izan omendako agure bat. Ibaiaren bazterrean bizi zen zerritegi baten hondakinetan. Mutikoek hormaren zirrikituetatik begiratzen zioten, eta hark, bere kamaina gainera erortzen ziren harri kozkorrak botatzen zizkion, eta hura han zetzan etengabe katarroak astindurik, bere txima luzeekin, betazalak hantura gorritz, eta besoan bere burua baino handiago ko tumorea zuela. Féliciték arropa zuria lortu zion, haren txabolazuloa garbitzen saiatu zen, hura labezokoan babeseratzeaz amesten zuen,

Madameri gaitzi ez izateko eran. Minbizia leher-  
tu zitzaionean, hark egunero bendatzen zion,  
batzutan opila ekartzen zion, eguzkitan jartzen  
zuen lastabal gainean; eta agure gizarajoak, ler-  
dea zeriola eta dardarizoka, bere ahots iraungi-  
tuaz eskerrak ematen zizkion, hura galduko ote  
zuen beldur zen, urruntzen ikusi orduko eskuak  
luzatzen zizkion. Hil egin zen; Féliciték meza bat  
atera zion haren arimaren atsedenen alde.

Egun hartan, zorion handi bat suertatu  
zitzaion: afal garaian, Mme Larsonnièreren bel-  
tza etorri zen, loroa kaiolan zuela, makila, katea  
eta txabeta eta guzti. Baronesaren gutun batek  
iragartzen zion Mme Aubaini ezen, haren senarra  
prefetura batera karguz igo zutenez, arratsean  
bazihoazela; eta txori hura onar zezan erregu-  
tzen zion, oroigarri gisa, eta zion begirunearen  
lekukotzat.

Aspaldi hartan zegoen hura Félicitéren irudi-  
menean, Amerikatik zetorrelako; eta hitz horrek  
Victor gogorarazten zion, hainbestearaino non  
haren berri galdetu ohi baitzion beltzari. Behin  
batez esan ere egin zion: — «Madamek bai atse-  
gin izango lukeela hura edukitzea!».

Beltzak, esandakoaren berri eman zion bere etxekoandreari, eta era horretan hura, eraman ezin zuenez, txori hartaz libratu zen.

## IV

Loulou zuen izena. Berdea zuen gorputza, hegoen puntak arroxak, bekokia urdina, eta lepezintzurra urrekolorekoa.

Baina bere makila mokokatzeko mania aspergarria zeukan, bere lumak erauzten zituen, bere zirinkeriak sakabanatzen zituen, bere bainerako ura zipriztinkatzen zuen; Mme Aubainek, hark gogaikatu egiten baitzuen, Félicitéri eman zion betirako.

Féliciték hari irakasteari ekin zion; laster errepikatzen zuen: «Mutil xarmanta! Zerbitzura-ko, Jauna! Agur, Maria!» Atearen ondoan kokaturik zegoen, eta asko harritu egiten ziren, Jacquot deitzean hark ez erantzuteaz, zeren loro guztiak Jacquot deitzen baitira. Tuntun batekin, purtzil batekin parekatzen zuten: horietako bakoitza ukabilkada bat Félicitérentzat! Eoskorkeria bitxia Loulourena, begiratzen zitzaion orduko lada ez zen mintzatzen!

Halere lagunartea xerkatzen zuen; zeren igandean, Rochefeuille damatxo horiek, Houppé-

ville jaunak eta bilzaletu berriek: Onfroy botikarioak, Varin jaunak eta Mathieu kapitainak beren kartapasara egiten zuten bitartean, hark beirak jotzen baitzituen hegoez, eta hain amorratuki zalapartakatzen zen non ezinezkoa baitzen elkarri ulertzea.

Bouraisen aurpegia, dudarik gabe, oso barre-garria iruditzen zitzaion. Hautematen zuen orduko, barrez hasten zen, barrez lehertzen. Haren ahotsaren palastadek atarian dunbatzen zuten, oihartzunak errepikatzen zituen, auzokoak leihoretara ateratzen ziren, haiek ere barre egiten zuten; eta, loroak ikus ez zezan, Bourais jauna hormaren kontra herrestatzen zen, perfila bere kapelarekin estaliz, ibaira iristen zen eta gero, jardineko atetik sartzen zen; eta txoriari igortzen zizkion begiradak ez ziren batere txeratsuak.

Loulouk harakin mutilarengandik zaparteko bat jaso zuen, haren otarrean burua sartzen aizu izan zelako; eta orduzkero betiere hura alkandoraren gainetik zimikatzen saiatzen zen. Fabuk hari lepoa bihurtzeko mehatxu egiten zuen, nahiz eta krudela ez izan, besoetako tatuaiak eta bere bibote luze handia gota behe-

ra. Aitzitik! bazuen loroaren aldeko halako samurbera bat, gazte umorea medio maldizioak irakatsi nahi izateko adinakoa. Féliciték, portae-  
ra horiek izuikara sartzen baitzioten, sukaldean jarri zuen. Kateatxo erretiratu egin zion, eta etxean barrena ibiltzen zen.

Eskilara jaisten zuenean, mailen gainean mokoaren gakoa tinkatzen zuen, eskuineko hanka altzaten zuen, gero ezkerra; eta neska-  
mea beldur zen, horrelako gimnasiagintzak hari zorabiorik ez ote zion eragingo. Loroa gaisotu egin zen; jada ezin mintzatu ezta jan ere. Mihia-  
ren pean pahapoa zen, batzutan oiloek izaten duten bezala. Hark berak sendatu zuen, bere azkazalez mintz hura erauziz. M. Paulek, egun batez, hari sudurretara zigarropuru baten kea puzkatzeko zuhurtzieza izan zuen; beste behin, Mme Lormeau bere ginbailaren ertzez hura zirikatzen ari zela, hark eraztuna hozkatu zion. Azkenik, galdu egin zen.

Féliciték belar gainean jarria zuen freskatzeko, minutu batez handik lekutu zen; eta, itzuli zenean, lororik ez! Lehenik sasi artean bilatu zuen, uraren bazterrean eta teilatu gainetan,



garraisika ari zitzaion bere etxekoandreaki entzun gabe:

«Kontuz ibili ba! zoraturik zaude!». Ondoren Pont-l'Évêqueko jardin guztiak miatu zituen; parean pasakoak gelditzen zituen: «Zuk ez zenuen ba, halakoren batetan, ausaz, nire loria ikusiko?».

Loria ezagutzen ez zutenei, haren deskribapena egiten zien. Bat batean, erroten atzean desleitu uste izan zuen, aldaparen beheko aldean, hegabiraka zebilen gauza berde bat. Baina aldapa goraino, eta ezer ez! Txerpolari batek baieztatu zion, lehentxeago ikusi zuela, Melainen, Simon atsoaren dendan. Hara jo zuen korrika. Han ez zekiten zer esan nahi ote zuen. Azkenik, etxera itzuli zen, ahiturik, oskiak puska-tan, heriotza ariman; eta, zizailuaren erdian eserita, Madameren ondoan, bere joan-etorri guztiak kontatzen ari zen, sorbalda gainera pisu arin bat erori zitzaionean, Loulou! Zer demonio egin ote zuen? Agian pasiatzen ibilia zen inguruan!

Nekez bueltatu zen bere onera, edo hobeto, inoiz ez zen lehengora bueltatu.

Hozkirrialdi baten ondorioz, anginatakoa harrapatu zuen; handik berehala, belarrietako gaitz bat. Hiru urte geroago, gorreria zuen; eta oso ozenki hitzegiten zuen, baita elizan ere. Nahiz eta haren pekatuak berarentzat desohore-rik gabe, eta munduarentzat eragozpenik gabe, diozesiko bazter guztietara aldarrika zitezkeen arren, apaiz jaunak komenigarritzat erabaki zuen haren aitortza aurrerantzean sakristian baino ez entzutea.

Irudipenezko durdurioek errematatzen zuten haren nahasmendua. Sarritan etxekoandreak esaten zion: — «Ene Jainkoa! zenbaterainoko tuntuna zaren!» Hark erantzuten zuen: — «Bai, Madame», bere inguruan zer edo zeren bila.

Haren ideien zirkulu txikia are murrizagotu zen, eta kanpaien errepikak, idien makakorroiak, jadanik ez zuten existitzen. Izaki guztiek main-tien isiltasunean funtzionatzen zuten. Hots bat bakarra heltzen zen orain haren belarrietara, loroaren ahotsa.

Hura lekoratzeko bailitzan, loroak errepika-tzen zituen burruntzibiraren tik tak hotsa, arrain saltzailebaten dei zorrotza, aurrez aurre bizi zen

zurginaren zerrotea; eta, txilin soinuen heinean, Mme Aubain imitatzen zuen, — «Félicité! atea! atea!».

Elkarrizketak izaten zituzten, loroak, bere bildumako hiru esaldiak aspertzear hizjariatuz, eta neskameak, inolako segidarik ez zuten, baina bere bihotza lasaitzen zioten hitzekin hari erantzunez. Loulou, haren isolamenduan, ia seme bat zen, maitale bat. Haren behatzetan gora igotzen zen, ezpainak mokoxkatzen zizkion, haren lepo-kozapian atzaparkatzen zen; eta, hark bekokia makurtzen zuenez haut txikien modura buruari eraginez, haren bonetaren hegalek handiek eta txoriaren hegalek batera egiten zuten dardara.

Hodeiak pilakatzen zirenean eta trumoiak durrundatzean, garraisiak botatzen zituen, agian bere sorleku basoetako erauntsiak gogoratuz. Uraren jarioak kitzikatu egiten zuen haren eldarnioa; hegatzatu egiten zen, aztoraturik, sabaira igotzen zen, dena uzkatzen zuen, eta leihotik kanpora jardinean palastatzera joaten zen; baina laster itzultzen zen kateatxoetariko baten gainera, eta, bere lumak lehortzeko saltatxoka, orain isatsa, orain mokoa erakusten zituen.

1837ko negu beltzeko goiz batez, Féliciték, hotza zela eta, su baju aurrean kokatua baitzuen, hilik aurkitu zuen, bere kaiolaren erdian, burua behean, eta atzaparrak burdinezko harietan. Nonbait, odolkolperen batek hil zuen? Hari ordea perrejilezko pozoinqueta sartu zitzaion buruan; eta, inolako frogarik ez zegoen arren, haren susmoak Faburen kontra zuzendu ziren.

Hainbeste nigar egin zuen non, etxekoandreak hala esan baitzion: — «Ene ba! eramantzazu disekatzera!».

Farmazilariari eskatu zion aholku, loroarekiko beti zintzoa izan baitzen.

Hark Havrera idatzi zuen. Fellacher zeritzan norbait arduratu zen eginkizun horretaz. Baina, diligentziak noizbehinka paketeak galtzen zitueenez, Honfleurera berak eramatea erabaki zuen.

Sagarrondo hostosoilduak errenkan zeuden bidearen bazterretan. Izotzak estaltzen zituen erretenak. Zakurrek zaunka zegiten etxalde inguruetan; eta eskuak bere bizkargainekoaren pean, bere eskalaproinekin eta bere saskitxoarekin, bizkor zihoan, galtzararen erditik.

Basoa zeharkatu zuen, Haut-Chêne gainditu zuen, Saint-Gatienera heldu zen.

Haren atzetik, hautsezko laino batean eta aldapabeherak eramanez, posta-kotxe bat aspala bizian oldartzen ari zen zurrumbilo bat antzo.

Alderatzen ez zen emakume hura ikusirik, gidaria kapotaren gainetik zurlitu zen, eta zaltzaina halaber garraisika ari zen, berak ere eurti ezin zien bere lau zaldiak gero eta lasterrago zihoa-zen bitartean; lehenengo biek marruskatzen zuten; erremalen astindura batez bazterrera bota zituen, baina haserre bizian jaso zuen besoa, eta besagain betean, bere zaharo handiaz, sabeletik mototseraino halako kolpea erantsi zion non, hura bizkarrez erori baitzen. Berriro kordea etorri zitzaionean, haren lehen higikera otarrea irekitzeko izan zen. Loulouk ez zuen ezer, zorionez. Sumindura sentitu zuen eskuineko masailan; hara jaso zituen bere eskuak gorri zeuden. Odola zerion.

Metrobeteko galtzarri pilaren gainean eseri zen, aurpegia musuzapiaz xukatu zuen, gero ogi koskor bat jan zuen, otarrean baezpada ere ipi-

nia, eta txoriari begira kontsolatzen zen bere zauriaz.

Ecquemauvilleko gainera iristean, Honfleureko argiak hauteman zituen, gauean izar pila baten gisa ñirñirka; itsasoa, urrunago, ilunkatsu hedatzen zen. Orduan ahulezia batek geldierazi zuen; eta bere haurtzaroko miseria, lehen maitasunaren dezepzioa, ilobaren abioa, Virginieren heriotzea, marea baten olatuak bezala, batera etorri ziran, eta, haren eztarrira igoz, ito egiten zuten.

Gero itsasuntziko kapitainari hitzegin nahi izan zion; eta, zer igortzen zuen esan gabe, zenbait gomendio egin zion.

Fellacherek denbora luzez gorde zuen loroa. Betiere hurrengo asterako agintzen zion; sei hilabeteren buruan, kaxa baten abioa iragarri zuen; eta haren aipurik ez zen gehiago izan. Pentsatzekoa zen Loulou ez zela sekula gehiago itzuliko. «Lapurtu egin didate nonbait!» pentsatzen zuen.

Azkenean iritsi zen, —eta distirante, kaobazko oin batean tinkatua zen arbola adar baten gainean tente, hanka bat aidean, burua zeharka,

eta, disekatzaileak handiostasunaren amarez, urrekolorea emana zion intxaur bati hozka.

Féliciték bere gelan giltzapetu zuen.

Toki horrek, non jende gutxi ametitzen baitzuen hark, aldi berean bazuen kapera baten eta azoka baten airea, izan ere bai baitzen han hainbat objektu erlijioso eta hainbat gauza heteroklito.

Armairu handi batek atea irekitzea oztopatzen zuen. Jardinaren gainera ematen zuen leihoaren aurrez aurre, argizulo borobil batek atarira begiratzen zuen; mahai batek, ohe sare baten ondoan, urontzi bat, bi orrazi, eta plater akastu batean xaboi kosko urdin bat sostengatzen zituen. Hormen kontra ikusten ziren: errosario batzuk, domina batzuk, Amabirjina asko, kokoazalezko urbedeinkatu ontzi bat; komodaren ganean, aldare baten gisa oihal batez estalia, Victorrek ernan zion txirlazko kaxa, gero garastailu bat eta ontzi bat, idazteko koadernoa, geografia estanpaduna, botin pare bat; eta ispiluaren iltzean, haren zintaz eskegirik, pelutxezko txano txikia! Féliciték hain urrun ere eramaten zuen begirune molde hori non, Monsieu-

ren longainetariko bat ere gordea baitzuen. Mme Aubainek jada ezertarako nahi ez zituen zaharria guztiak, hark bere gelarako hartzen zituen. Horrela kausitzen zen han bazirela lore artifizialak komoda ertzean, eta Artoisko kontearen erretratua sabaileihoaren zoko barnean.

Oholtxo baten medioz, apartamendu barruan luzatzen zen tximinialde baten gainean kokaturik suertatu zen Loulou. Goizero, esnatzerakoan, egunsentiaren argitan hautematen zuen hura Féliciték, eta orduan oroitzen zen desagerturiko egunez, eta ekintza hutsalez haien xehetasunik txikienetan ere, atsekaberik gabe, lasaitasunez beterik.

Inorekin komunikatzen ez zenez, lozorro baten zuntzunerian bizi zen. Bestaberritako prozesioek pizkortzen zuten. Auzoko etxeetara joaten zen zuzi eta xingola eske, kalean altxatzen zen aldarea apaintzeko.

Elizan, beti Izpiritu Santua betesten zuen, eta ohartu zen hark bazuela loroaren zertxobait. Haren antza are nabarmenagoa iruditu zitzaion Epinaleko irudi batean, Jesukristoren bataioa irudikatzen zuenean. Hura bere purpurazko hego



eta bere esmeraldazko gorputzarekin, benetan Loulouren erretratua zen.

Erosi zuen eta Artoisko kontearen lekuan eskegi zuen, horrela, begibista batean bertan, biak batera ikusten zituela. Haren pentsamenduan elkartu egin ziren, loroa Izpiritu Santuarekin erlazio borren bidez santifikatua kausitzen zelarik, eta Izpiritu Santua haren begietarako biziagoa bilakatzen zelarik eta ulergarria. Bere burua adierazteko, Aitak, ezin izan zuen uso bat aukeratu, zeren piztia horiek ez baitute ahotsik, baizik eta bai ordea Loulouren arbasoren bat. Eta Féliciték irudiari begira egiten zuen otoitz, baina aldian behinka txoriaren aldera jiratzen zen piska bat.

Mariaren alaba sartzeko gogoia izan zuen. Mme Aubainek kendu zion hori burutik.

Garrantzizko gertaera bat sortu zen: Paulen ezkontza.

Lehendabizi notario urgazle, gero merkatari, aduanako, zergalari, eta ur eta basoetarako sarbideari ere ekin ondoren, hogeita hamasei urte zuela, bat-batean, zeruaren iradokipenez, bere bidea aurkitu zuen: erregistraria! eta horretan

hain balio handiak erakusten zituen non, egiaz-  
tatzaille batek bere alaba eskaini baitzion, bere  
babesa ere aginduz.

Paulek, ganoradun bilakaturik, amaren etxe-  
ra eraman zuen.

Neskak erdeinatu egin zituen Pont-l'Evêque-  
ko ohiturak, printzesarena egin zuen, Félicité  
mindu zuen. Mme Aubainek, hura abiatzean,  
arindura sentitu zuen.

Hurrengo astean, Bourais jaunaren heriotza-  
ren berri jakin zen, Bretaina behean, ostatu  
batean. Bere buruaz beste egin izanaren zurrur-  
murrua bermatu egin zen; haren gizalegetasu-  
naz zalantzak zabaldu ziren. Mme Aubainek bere  
kontuak aztertu zituen, eta ez zion luze eraman  
haren faltserien letania ezagutzeak: atzerape-  
nen desbideratzeak, baso salmenta isilekoak,  
faktura faltsuak, e.a. Gainera, sasikume bat zeu-  
kan, eta «Dozuléko pertsona batekin hartuema-  
nak zituen».

Lizunkeria horiek atsekabe handia eragin zio-  
ten. 1853ko martxoan bularreko oinaze batek  
harrapatu zuen; haren mingainak kez estalia  
zirudien, izainbareek ez zuten baretu haren her-

tsadura; eta bederatzigarren arratsean azken  
arnasa eman zuen, justu hirurogeita hamabi urte  
zuela.

Gazteago zela uste zuten, haren ile beltzara-  
nagatik, adatsek aurpegi zurikaila, naparreri  
pikorrek markatua, inguratzen ziotela. Lagun  
gutxik auhendatu zuten, haren jendetasuna bes-  
teengandik urruntzen zuen goizalea izaki.

Féliciték bai nigartu zuen, ugazabengatik  
nigar egin ohi ez den moduan. Madame bera  
baino lehen hil izanak, horrek, ideiak nahasten  
zizkion, gauzen ordenaren kontrakoa iruditzen  
zitzaion, ametiezinekoa eta munstrokeria.

Handik hamar egunetara (Besançonetik pre-  
saz etortzeko denbora) herentzidunak azaldu  
ziren.

Errainak kajoiak miatu zituen, altzariak auke-  
ratu zituen, gainerakoak saldu zituen, gero erre-  
gistro gintzara itzuli ziren.

Madameren besaulkia, haren mahaia, haren  
sutontzia, zortzi aulkiak, joanak ziren! Grabatuen  
tokia karratu horitan marrazten zen trenkaden  
erdian. Bi ohantzeak, beren koltxoiekin, erama-  
nak zituzten, eta apaletan jada ez zen ageri Vir-

ginieren gauza guztietarik ezer. Félicité solairuak igotzen joan zen, tristuraz hordi.

Biharamonean kartel bat zegoen atearen gainean; botikarioak belarrira garraisika esan zion, etxea salmentan zegoela.

Hark balantzaka egin zuen, eta eseri beharrean gertatu zen.

Nagusiki nahigabetzen zuena, bere gela uztea zen, —hain eroso Loulou gaisoarentzat. Larridurazko begirada batean hura inguratuz, Izpiritu Santuari erregu egiten zion, eta bere errezoak loroaren aurrean belaunikaturik egiteko ohitura idolatra hartu zuen. Batzutan, eguzkiak argizulotik sartzean haren beirazko begia jotzen zuen, eta hartatik, Félicité extasian ipintzen zuen izpi argitsu handi bat jalgieratzen zuen.

Hirurehun eta laurogei liberatako errenta zenkan, etxekoandreak testamenduan lagata. Barazkiz jardinak hornitzen zuen. Jantziei zego-kienez, bere bizialdiaren azkenerarte zer jantzi-rik bazeukan, eta ilunabarra orduko oheratuz argia aurreratzen zuen.

Ez zen ia behin ere irtetzen, aintzinako altzarietariko batzuk ipiniak zeuden piltzarkariaren denda ekiditearren. Zorabio harez gero, zango bat herrestatu egiten zuen; eta, haren indarrak murrizten ari zirenez, Simon atsoa, janaridendan porrot egina, goizero etortzen zen hari egurra pitzatzera eta ura ponpatzera.

Haren begiak ahuldu egin ziren. Pertsianak jadanik ez ziren irikitzen. Urterik asko iragan zen. Eta etxea ez zen alokatzen, eta ez zen saltzen.

Kanpora botako ez ote zuten beldurrez, Féliciték ez zuen inolako konponketarik eskatzen. Teilatuko latak usteltzen ari ziren; negu oso batez haren burukoa bustirik egon zen. Pazko ondoren, odola ttukatu zuen.

Orduan Simon atsoak doktore batengana jo zuen. Zer zeukan jakin nahi izan zuen Féliciték. Baina, entzuteko gorregi, hitz bat bakarrik heldu zitzaion: «Pneumonia». Ezaguna zitzaion, eta ez tiro esan zuen: — «A! Madamek bezala», bere etxekoandeari jarraikitzea legezkoztat kausituz.

Prozesio-aldareen momentua hurbiltzen ari zen.

Lehenengoa beti aldaparen oinean izaten zen, bigarrera postaren aurrean, hirugarrena kalearen erdi aldera. Hari buruz lehiak izan ziren; eta parrokiako emakumeek azkenean Mme Aubainen ataria hautaru zuten.

Hersturak eta kalentura gero eta handiagoak ziren. Félicité minduratu egiten zen aldarerako ezer ez egiteagatik. Gutxienik ere, hartan zerbait ipini ahal izan balu behintzat! Orduan loroaz pentsatu zuen. Hori ez zen itxurazkoa, argudiatu zuten auzoko andreek. Baina apaizak eman zuen horretarako baimena; horrek hain zoriontsu egin zuen non, bera hiltzean, Loulou, bere ondasun bakarra, onar zezan erregutu baitzion.

Asteartetik larunbatera, Bestaberriaren bezpera, sarriago egin zuen eztula. Arratsean haren aurpegia zurrundurik zegoen, haren ezpainak hortzoietan eransten ziren, okadak hasi ziren; eta biharamonean egunsenti-begian, oso lurjota sentitzen baitzen, apaiz bat eskatu zuen.

Hiru emakumek inguratzen zuten azken-igurtzirakoan. Gero adierazi zuen, Faburekin hitzeging beharra zuela.

Hura igande-jantzitan heldu zen, deseroso atmosfera hits hartan.

— «Barkaidazu» esan zion Féliciték besoa luzatzen ahaleginduz. «Nik uste nuen zu zinela hil zenuena!».

Zer esan nahi zuten horrelako saltsa horiek? Hiltzailatzat susmatu, hura zen gisako gizona! Asaldatu egin zen, eskandaluan hastear zegoen. — «Burua joan zaio, bistan duzu hori!»

Félicité aldian behin mamukoei mintzatzen zitzaien. Emakumetxoak urrundu egin ziren. Simonek gosaldtu egin zuen.

Piska bat geroago, hartu zuen Loulou, eta, Félicitérengana hurbildurik:

— «Ea ba! esaiozu agur!».

Txoria gorpu bat ez zen arren, harrak ari ziren hura jaten; haren hegaletariko bat puskatu-rik zegoen, iztupa ateratzen zitzaion sabeletik. Baina, ordurako itsu, hark kopetan musu eman zion, eta bere masailaren kontra zeukan. Simonek hartu zion berrero, aldare gainean ipintzeko.

## V

Belartzariek udaren usaina bidaltzen zuten; euliek burruna egiten zuten; eguzkiak ibaia distirarazten zuen, harbelteilak berotzen zituen. Simon atsoa, gelara itzulirik, gozo-gozo lokartzan ari zen.

Kanpai hotsek iratzarri zuten; bezperetatik irtetzen ari ziren. Félicitéren eldarnioa erori zen.

Prozesioaz pentsatzean, hura ikusi egiten zuen, bera han bertan joango bailitzan.

Eskoletako haur guztiak, txantreak eta suhiltzaileak espaloian barrena zihoazen, eta aldiz kalearen erditik aurrera lehenik: bere alabardaz armaturiko klamera, sakristaua gurutze handi batekin, maisua mutikoak zaintzen, moja bere neskatoez kezkatuak; panpoxenatariko hiruk, aingeruren gisako kizkurrak, arrosa petaloak jaurtikitzen zituzten aidean; diakonoak, besoak luzaturik, musika erabidetzen zuen; eta bi intzentsulari, urratsik urrats, lau elizgizonek eusten zion balusa harrozko trozal baten pean, apaiz jaunak, mezajantzi ederrez, zeraman



Sakramendu Santuaren aidera jiratzan ziren. Egundoko jendaldea zen atzetik elkarri bultzaka, etxeetako hormak estaltzen zituzten oihal zurien artean; eta aldaparen oinera heldu ziren.

Izerdi hotzak bustitzen zituen Félicitéren lokiak. Simonek xukatzen zion zapi batez, berekiko esanez berak ere egunen batez hartatik pasatu behar izango zuela.

Jendetzaren murmurioa handitzen joan zen, momentu batez oso bortitza izan zen, urruntzen zihoan. Tiroketa batek dardarikatu zituen kristalak, zaltzainak ziren ekisaindua agurtzen. Féliciték begininiak birakatu zituen eta ahal izan zuen isilenik esan zuen: — «Ongi al dago?» loroarengatik izularriturik.

Haren agonia hasi zen. Karrankada gero eta lasterrago batek altzatzen zizkion saihetsak. Bitsezko bonboiloak zetozkion ahoaren ertzetara, eta gorputz osoak dardar egiten zion.

Handik laster, musikarien durrundarak nabaritu ziren, haurren ahots garbiak, gizonezkoen ahots sakona. Tarteka dena isiltzen zen, eta loreek baretzen zituzten pausoen taupakerak, belaze gainean artalde baten hotsa egiten zuen.

Abadegoa azaldu zen atarian. Simon aulki baten gainera igo zen argizulo borobilera iristeko, eta horrela gainbehera hartzen zuen aldarea.

Loreuztai berdeak dilindan zeuden, Inglaterako puntuzko girgaileriaz apaindutako aldare gainean. Haren erdian bazegoen koadro txiki bat barnean erlikiak gordetzen zituena, ertzetan bi laranjondo, eta, luzeera osoan, zilarrezko argizuzkiak eta portzelanazko ontziak, haietatik ekiloreak, liliak, basaliliak, kukuloreak, hortentsia sortak ateratzen zirela. Kolore zalapartazko murko hori lapranean jaisten zen, lehen solairutik lurreko tapizeraino galtzara gainean aurrera luzatuz; eta zenbait gauza bitxik jotzen zien begietara. Zilargorritzko azukreontzi batek briolenta koroe bat zeukan, Alençoneko harrizko zintzilikarioek distira egiten zuten goroldioaren gainean, bi koadro txinatarrek beren paisaiak erakusten zituzten. Louloulou, arrosapean ezkutaturik, bere bekoki urdina besterik ez zuen ikustera ematen, harriurdin plaka bat bailitzan.

Elizgizonak, txantreak, haurrak ilaraka kokatu ziren atariaren hiru aldeetan. Apaizak geldiro igo zituen mailak, eta brodatuaren gainean ipini

zuen argiprintzak jaurtikitzen zituen bere urrezko eguzki handia. Guztiak belaunikatu ziren. Isiltasun hadia egin zen. Eta intzentsarioak, jirabira bizian, beren kateatxoan gainean herrestatzen ziren.

Lurrun urdin bat igo zen Félicitéren gela barrura. Sudur hegalak jaso zituen, sentsualitate mistiko batez hura arnastuz; gero betazalak itxi zituen. Haren ezpainen irribarrea zegiten. Haren bihotzaren mugimenduak baretu egin ziren banaka banaka, aldian aldian hutsalago, eztiago, iturri bat agortzen den gisa, oihartzun bat desgaiten den gisa; eta azken arnasa eman zuenean, ikusi uste izan zuen, zeru erdirekian, loro erraldoi bat, bere buruaren gainean hegozabalik.